



## ITALIERA OINARRIZKO MAILA 1 ETA 2: HELBURUAK ETA EDUKIAK

### HELBURUAK

#### Zein dira Oinarrizko mailako 1. kurtsoko helburuak?

Oinarrizko Mailako 1. kurtsoarean amaieran, gaitasun hauek izango dituzte ikasleek:

- Eguneroko gaiei edo gai pertsonalei buruz oso elkarrizketa laburrak (agurrak, aurkezpenak, eskerrona eta barkamena), argibide eta oharpen errazak errazak **ulertu**.
- Oinarrizko eginkizunetan esaten den funtsezkoena **ulertu**: erosketak egin, ikastaro batean edo hotel batean izena eman.
- Iragarki eta mezu laburretako funtsezkoena **hauteman**.
- Oharrak, mezu pertsonal laburrak (SMS, mezu elektronikoak, postalak) eta iragarkiak (esaterako. *Vendesi*) **ulertu**.
- Ohiko hiztegia duten testu laburretatik informazio orokorra eta espezifikoa **ulertu** eta bereizi.
- Fitxak eta inprimakiak osatzeko jarraibide oso oinarrizkoak **ulertu**.
- Leku publikoetako oinarrizko informazio, jarraibide eta ohar labur eta ohikoak **ulertu** (kaleko, dendetako, jatetxeetako eta garraioetako kartelak).
- Kortesiako ohiko formulak **erabili** (agurtu, aurkeztu, eskerrak eman, barkamena eskatu, pertsonenganako interesa erakutsi).
- Ohiko gauzak eta mesedeak **eskatu eta eskaini**.
- Informazio pertsonala **eman eta eskatu** (nazionalitatea, non bizi den, jarduerak, interesak, familia, lagunak, aisia, etab.)
- Pertsona, leku, jarduera eta interesen aurkezpen eta deskribapen errazak **egin**.
- Eguneroko jarduerekin zerikusia daukaten informazio, jarraibide eta ohar oso oinarrizkoak **idatzi** (esaterako, *Cerco casa*).
- Ereduetatik abiatuta korrespondentzia pertsonal oso sinplea (postalak) **idatzi**.
- Gai ezagunei buruzko testu laburrak **idatzi** esaldi laburrak oinarrizko lokailuez elkartuz “*y, o, pero, porque*”.

#### Zein dira Oinarrizko mailako 2. kurtsoko helburuak?

Oinarrizko Mailaren 2. kurtsoarean amaieran, gaitasun hauek izango dituzte ikasleek:

- Eguneroko elkarrizketa errazetan esaten direnak **ulertu**, solaskideek laguntzen badiete.
- Elkarrizketen gaia **hauteman**.
- Banketxe, denda, geltoki eta bestelako ohiko egoeretan esaldi eta esapideak **ulertu**.
- Iragarki edo mezu publiko labur eta errazen esanahi orokorra **ulertu**, saltoki handietan, aireportuetan, eta bestelakoetan.
- Telebistaz igorritako berrien oinarrizko informazioa **ulertu**, irudiek ahozko informazioari laguntzen badiote.
- Eguneroko ekintzekin zerikusia duten ohar eta mezu laburrak **ulertu** (SMS, posta elektronikoak, postalak).
- Gutun pertsonal labur eta errazak **ulertu**.
- Kontu praktikoei buruzko gutun formal laburrak **ulertu** (hoteletan erreserbak egin, atzerriko ikastaroei buruzko informazioa eskatu).

○

- o
- o Egunerokoan erabiltzen diren argibideak eta jarraibideak **ulertu** (errezetak, tresnen funtzionamendua, joko-arauak, kaleetako eta dendetako kartelak).
- o Eskuliburu ilustratuetan eta bestelako informazio-materialetan (menuak, zerrendak eta ordutegiak, kultur eta kirol jarduerak) informazioa **aurkitu** eta ulertu.
- o Kazetaritza testu labur eta errazetan informazio garrantzitsuena **identifikatu**.
- o Narrazio edo kontakizun labur eta errazak **ulertu**.
  
- o Egunerokoarekin zerikusia duten jarduera eta egoerei loturiko informazio, argibide eta jarraibideen ohar edo mezu errazak **idatzi**.
- o Eskerrak emateko, barkamena eskatzeko edo nork bere buruari buruz edo inguruari buruz (familia, bizi-baldintzak, lana, lagunak, zaletasunak, etab.) hitz egiteko gutun pertsonal errazak **idatzi**.
- o Zerbitzuren bat edo informazioa eskatzeko gutun formal erraz eta laburrak **idatzi**.
- o Gertaerak esaldi laburrekin **deskribatu**, noiz eta non gertatu den azaltzeko (festak, istripuak, etab.).
- o Denborazko eta kausazko hitz eta egitura antolatzaileak erabiliz testuari **koherentzia eman**.
  
- o Egoera pertsonalak modu sinplean **deskribatu** (non bizi den, familia, prestakuntza, lana, zaletasunak).
- o Iraganeko jarduera eta esperientzia pertsonalak modu sinple eta egituratuan **deskribatu**.
- o Gizarte **harremanak finkatu** (agurtu, barkamena eskatu, gonbidapenak egin, etab.).
- o Eguneroko zeregin errazetan **ondo moldatu** (banketxean, bidaia-agentzietan, dendetan, etab.).
- o Informazio zehatza **eman eta jaso** (leku batera iristeko argibideak eman, etab.).
- o Egunerokoari loturiko informazio zehatza emateko, eskaintzak egiteko eta iradokizunak egiteko **elkarrizketetan parte hartu** (lanari buruz, aisialdiari buruz, etab.).
- o Eguneroko egoeretan **adostasunak lortu** (hitzordu pertsonalak eta formalagoak, medikuarenean, esaterako).

## EDUKIAK

(Urdinez A1 mailarako, berdez A2 mailarako, eta beltzez A1 eta A2 mailetarako)

Helburu horiek lortzeko, hizkuntza-funtzio hauek ikasiko dituzte:

### 1. Informazio orokorra eman eta eskatzen:

- o Izenari, adinari, abizenei, egoera zibilarri, naziotasunari, lanbideari, telefono zenbakiari, helbideari, posta elektronikoari eta bestelakoei buruzko informazioa eman eta eskatu.
- o Pertsonen buruzko informazioa eskatu eta eman (lanbideak, familia, trebeziak, gustuak, zaletasunak), baita ordutegi, data, otordu, leku (eskola eta bizilekua), jaki, edari eta bestelakoei buruz ere.
- o Zerbait noren den galdetu eta esan.
- o Pertsonak, aldarteak eta egoera fisikoak modu sinplean deskribatu.
- o Ohiko ekintzak edo egungoak aipatu.
- o Hizketan ari garen unean gertatzen diren ekintzei buruz hitz egin.
- o Pertsonak, objektuak (jantziak, altzariak, eraikinak eta eraikinetako bulegoak), egoerak eta ekintzak deskribatu.
- o Eguraldiari buruz hitz egin.
- o Gauzak lekuan mugatu eta kokatu (objektuak ikasgelan, etxean, hirian).
- o Zerbait edo norbait gertu edo urrun dagoen adierazi.
- o Iraganeko gertakari bat kontatu eta hari buruz galdetu.
- o Esandakoa zuzendu, atzera egin, zalantza adierazi.
- o Azalpenetan gertaerak zenbatu.
- o Oraina eta iragana konparatu.
- o Laburtu (pelikulak, liburuak...).
- o Definitu.
- o Gertaera baten berri ez duela edo baduela adierazi.

- Iragarpenak egin eta gauzen berri eman.
- Asmoei eta proiektuei buruz jardun.
- Helburuak adierazi (asmooak eta promesak).
- Pertsoneri, gauzei, gertakariei edo ekintzei buruzko hipotesiak azaldu.
- Denbora sekuentziak adierazi.
- Hitza eskatu eta eman, solaskidearen jarduna eten, hitz egiteari utzi, etab.

## 2. Jarrerak eta iritziak azaltzen eta aztertzen:

- Gustuei buruz informazioa eman eta eskatu.
- Zerbaiten berri ez duela edo baduela adierazi.
- Egoera fisikoari eta osasunari buruzko informazioa eman eta eskatu: hotza edo beroa, logura, gosea edo egarria, zaporea, ongizatea edo ezinegona.
- Barkamena eskatu eta barkatu.
- Zalantza adierazi.
- Interesa edo interesik eza erakutsi.
- Adostasuna edo desadostasuna adierazi.
- Proposamen edo ideia baten alde edo kontra azaldu.
- Lehentasunen berri eman.
- Aukeraketak egin.
- Axolagabetasuna adierazi.
- Harridura adierazi.
- Pena adierazi.
- Nahien berri eman.
- Aldarteari eta egoera horien ondorioei buruzko informazioa eman eta eskatu: gogaitasuna, gogobetetasuna edo gogobetetasun eza, miresmena, interesa, estimua, poza, etab.

## 3. Konbentzitzen:

- Laguntza eskatu eta eskaini.
- Ikasgelako jarduerari buruzko aginduak eman.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.
- Laguntza eskaini eta eskatu, onartu eta ukatu.
- Zerbait egitera bultzatu.
- Argibideak eskatu eta eman (helbideak, lekuren batera iristeko).
- Lankidetzak eskatu.
- Mezuak errepikatzeko eskatu edo mantsoago hitz egiteko eskatu.
- Hitz edo esapideen esanahia edo itzulpena galdetu edo eman.
- Ulertu ez diren hitz edo izen bereziak letraka esateko eskatu.
- Ahotsari buruzko zehaztasunak eskatu: ozenago hitz egiteko, baxuago hitz egiteko, etab.
- Zerbait egiteko asmoari, nahiari edo erabakiari buruzko informazioa eskatu edo eman.
- Eginbeharra adierazi.
- Aholkuak eskatu eta eman.
- Laguntza eskatu.
- Debekuak adierazi.
- Jarduerak iradoki eta iradokizunei erantzun.
- Hitzorduak adostu, norbaitekin hitzordua lotu.
- Aitzakiak eta desenkusak adierazi, onartu eta ukatu, arrazoiak eman.
- Telefono bidezko oinarrizko elkarrizketak eraman (komunikazioa hasi, norbaiten galdea egin, solaskideari itxaron dezan eskatu, entzuten edo ulertzen den adierazi, agurtu, etab.).
- Solaskidea hizketan jarrai dezan bultzatu.

## 4. Sozializatzen:

- Agurtu, agurrei erantzun eta adio egin.
- Nork bere burua aurkeztu, aurkezpenak egin eta aurkezpenei erantzun.
- Norbaiti buruzko informazioa eskatu eta eman.
- Eskerrak eman eta eskerrak jasotzean erantzun.
- Zoriondu eta zorionei erantzun.
- Norbait ohartarazi.
- Ongietorria eman

- Oinarrizko mezu bat berriz esan.
- Ulertu dela edo komunikazioari eusten zaiola adierazi.
- Gonbidapenak onartu edo ukatu.
- Barkamena eskatu.
- Informazioaren bat edo kontakizunen bat entzundakoan interesa, harridura, poza, pena etab. adieraziz erantzun.
- Mezuak ulertu direla egiaztatu.

## **Nolako testuak irakurriko dituzte?**

*(1. eta 2. kurtsoetan berdín)*

- Gutun pertsonalak.
- Gutun formalak.
- Aginduak eta jarraibideak: errezetak, jarraibideak, lekuren bat aurkitzeko argibideak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa.
- Curriculum vitaeak.
- Panelak eta oharrak.
- Ordutegiak eta egutegiak.
- Informazio-kartelak, araudiak.
- Menuak eta kartak.
- Planoak eta kale-izendegiak.
- Formularioak eta galdetegiak.
- Propaganda, publizitate-orriak.
- Aldizkari eta egunkarietako artíkulu errazak.
- Komikiak, tebeoak eta biñetak.
- Horoskopoak.
- Turismoko, bidaietako, aisialdiko eta abarreko gidak.
- Publizitateko testuak.
- Web orriak.
- Orainaldiko eta lehenaldiko gertaerei buruzko narrazioak eta deskribapenak.
- Eleberríak (1. kurtzorako egokituak).

## **Nolako testuak entzungo dituzte?**

*(1. eta 2. kurtsoetan berdín)*

- Lagunarteko elkarrizketak, lagunekin, senitartekoekin, adiskideekin.
- Bankuetan, dendetan, agentzietan izan daitezkeen elkarrizketak.
- Telefono bidezko elkarrizketak.
- Erantzungailu automatikoko mezuak.
- Laneko elkarrizketak.
- Irrati eta telebistako informazioa.
- Iragarki publikoak eta publizitatea.
- Albiste laburrak.
- Eguraldiaren iragarpenak.

## **Nolako testuak idatziko dituzte?**

*(1. eta 2. kurtsoetan berdín)*

- Gutun pertsonalak.
- Gutun formalak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa.
- Curriculum vitaeak.
- Panelak eta oharrak.

- Informazioko kartelak, araudiak.
- Formularioak eta galdetegiak.
- Orainaldiko eta lehenaldiko gertaerei buruzko narrazioak eta deskribapenak.

## Zer gai landuko dituzte?

(1. eta 2. kurtsoetan berdin)

- Nork bere burua identifikatu.
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.
- Eguneroko bizimoduko jarduerak.
- Denbora libre eta aisialdia.
- Bidaiak.
- Giza eta gizarte harremanak.
- Osasuna eta zainketa fisikoa.
- Heziketa.
- Erosketak eta merkataritza jarduerak.
- Elikadura.
- Ondasunak eta zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Klima, atmosferaren gorabeherak eta ingurumena.
- Zientzia eta teknologia.

## Zer hiztegi ikasiko dute?

### Nork bere burua identifikatzeko:

- Pertsonen izaerarekin, trebetasunekin eta deskribapen fisikoarekin zerikusia duen oinarritzko lexikoa.
- Jantziekin eta osagarriekin zerikusia duen lexikoa.

### Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua:

- Etxebizitza: motak, kokapena, atalak eta banaketa.
- **Altzariak, tresnak eta lanabesak.**
- Hiria: kokapena, atalak, kaleak, eraikinak, berdeguneak eta monumentuak.
- **Ikasten den hizkuntza hitz egiten den herrialdearen edo herrialdeen lurralde-banaketa.**

### Eguneroko bizimoduko jarduerak:

- **Denbora-tarteei buruzko lexikoa: urteak, hilabeteak, asteak, egunak, egunaren atalak eta ordua.**
- Etxeko, laneko edo ikastetxeetako jarduerekin zerikusia duen lexikoa.

### Denbora libre eta aisialdia:

- **Jarduerekin zerikusia duen oinarritzko lexikoa: kirola, kultura-jarduerak...**
- Aisialdirako lekuak: antzokia, museoa, hondartza...

### Bidaiak:

- **Turismoarekin eta emigrazioarekin zerikusia daukan lexikoa.**
- Garraiobideak.
- **Bidaia motak: lanekoak, atsedenekoak, ikasketa-bidaiak.**
- **Herrialdeen eta nazionalitateen izenak.**

### Giza eta gizarte harremanak:

- **Familia bateko kideekin zerikusia daukan lexikoa.**
- **Adiskidetasunarekin, sentipenekin eta maitasunarekin zerikusia daukan lexikoa.**
- Lan-munduarekin zerikusia daukan lexikoa.

### Osasuna eta zainketa fisikoa:

- **Gorputzeko atalak.**
- **Sintomak eta gaixotasunak.**
- **Osasun-munduarekin zerikusia daukan lexikoa.**

**Hezkuntza:**

- o Hezkuntzarekin zerikusia daukan lexikoa: hezkuntza-zentroak, ikasgaiak, kalifikazioak, ziurtagiriak...
- o Ikasgelako jarduerekin eta eskola-materialarekin zerikusia daukan lexikoa.

**Erosketak eta merkataritza-jarduerak:**

- o Erabilera pertsonaleko ohiko gauzen izenak.
- o Saltegiak.
- o Prezioa, monetak, ordaintzeko moduak...

**Elikadura:**

- o Elikagaiekin eta ontzi motekin zerikusia daukan lexikoa.
- o Janariarekin zerikusia daukaten tresnen izenak.
- o Kopuruak, pisuak eta neurriak.

**Ondasunak eta zerbitzuak:**

- o Zerbitzu pribatuak eta publikoak: bankuak, posta...

**Hizkuntza eta komunikazioa:**

- o Hizkuntzaren ikaskuntzarekin zerikusia daukan oinarritzko lexikoa.
- o Munduko hizkuntzak.
- o Komunikabideak: telebista, irratia, eta abar.

**Klima, atmosferaren gorabeherak eta ingurumena:**

- o Fenomeno atmosferikoak eta klimatikoak.
- o Gorabehera geografikoak.

**Zientzia eta teknologia:**

- o Telefonoarekin zerikusia daukan lexikoa.
- o Ordenagailuarekin, Internetekin eta bestelako komunikabideekin zerikusia daukan oinarritzko lexikoa.

## Zer ikasiko dute italiara hitz egiten den herrien kulturari buruz?

**Nork bere burua identifikatzeko:**

- o Izen eta abizen ohikoenak.
- o Abizen kopurua eta ordena.
- o Agurtzeko keinuak.

**Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua:**

- o Etxebizitza ohikoenak.
- o Oinarritzko ezaugarri geografikoak.

**Eguneroko bizimoduko jarduerak:**

- o Lan-baldintzak eta enplegu-bilaketa.
- o Puntualtasuna.
- o Elementu sozialak.

**Denbora librea eta aisialdia:**

- o Aisialdiko eta denbora libreko jarduera ohikoenak.
- o Erreferente artistiko eta kulturalak.
- o Ospakizun eta zeremonia adierazgarrienak.

**Bidaiak:**

- o Gizalegezko ohiturak: gidatzeko arauak, etab.
- o Jomuga turistikoko ezagunenak.

**Giza eta gizarte harremanak:**

- o Familia-bizimoduko ohiturak.
- o Familia-egitura.

**Hezkuntza:**

- o Eskola-sistema.

**Erosketak eta merkataritza-jarduerak:**

- o Kontsumo-ohiturak.

**Elikadura:**

- o Gastronomia eta elikadura-ohiturak.
- o Hainbat jaitarako ohiko janariak.

**Ondasunak eta zerbitzuak:**

- o Denden, banketxeen, eta abarren ordutegiak.

**Zientzia eta teknologia:**

- o Informazio eta komunikazio teknologia berrien presentzia.

## Nolako atazak egin behar dituzte?

**Bidaiak:**

- o *L'Italia dal vivo* turismoko gida egingo dute, Italiako jomuga turistiko ezagunenei buruz.

**Denbora libre eta aisialdia:**

- o Urtebetetze-jai bat antolatuko dute, eta horretarako eguna eta tokia zehaztuko dituzte, gonbidapenak egingo dituzte, Bilbon italiaraz hitz egiten duten dendetan erosketak egingo dituzte, jaia antolatzeko zereginak banatuko dituzte.

**Giza eta gizarte harremanak:**

- o Denon artean Italiako *Cervantes* institutueta zuzendariei zuzendutako aurkezpen-gutun bat egingo dute, hango HEOKo ikasleekin eta *Cervantes* institutuan gaztelera ikasten duten ikasle italiarrekin banan-banako harremana lortzeko (*Amici di penna*).

**Elikadura:**

- o Italiako *Il golosone* jaki tipikoak prestatzeko lehiaketa batean parte hartuko dute eta dastaketa egingo dute.

## Zer egitura gramatikal ikasiko dituzte?

Fonologiako, ortografiako eta gramatikako hizkuntza-gaitasunak komunikatzen laguntzeko bitartekoa dira, eta haien erabilera barne hartzen duten zereginen bitartez barneratzen dira.

Testuak –testua ahozko nahiz idatzizko diskurtso-sekuentzia oso bat da– ulertzeko eta sortzeko, testuaren ezaugarriak aztertu behar dira:

**o Egokitzapena.**

Komunikazio-asmoa.

Testuingurua eta kokapena

Hizkuntzaren erregistroa eta maila

**o Testuaren koherentzia.**

Edukiaren egituraketa.

Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.

Hautaketa lexikoa eta hizkuntzaren funtzioak.

**o Testuaren kohesioa.**

Elementu prosodikoak eta ortografikoak (intonazioa eta puntuazioa).

Baliabideak (izenordainak, izenen elipsiak, sinonimoak, eremu semantikoak...)

Diskurtsoaren markagailuak:

- Espazio-markagailuak (kokapenekoak).

- Denboramarkagailuak (ekintza jarraituak adierazteko).
- Perpaus koordinatuen eta menpekoen arteko testu-markagailuak edo lokailuak.
- Perpausen edo paragrafoen arteko loturazko edo erlazio logikozko testu-markagailu edo lokailuak.
- Ahozko diskurtsoari eusteko markagailuak.

Xede hizkuntzan komunikatu ahal izateko, honako **egitura gramatikal** hauek ikasiko dituzte.

## OINARRIZKO MAILAKO LEHENENGO KURTSOA

### °Perpaus bakuna

- perpausaren ordena logikoa eta ordena subjektiboa.
- perpausaren osagaiak (objektu zuzena: gaztelaniazko eta italierazko egituren arteko aldea)
- bai/ez* erantzuna duten galdera-perpausak eta *chi, dove, quando...* elementuez hasten direnak.
- aditzik gabeko harridurazko perpausak.
- Aspektuzko aditzekin osatzen diren perpausen aurkezpena (*cominciare a ..., smettere di ...*)

### °Perpaus konposatua

- perpaus koordinatuak honako elementu hauekin: *e, o, ma, però*.
- menpeko kausalak eta denborazko esplizituak.
- helburuzko menpeko implizituak.

### °Izenak eta adjektiboak

- genero eta zenbakiko morfemak.
- artikularen, izenaren eta adjektiboaren arteko komuntadura.
- kokapena eta forma apokopatuak.

### °Determinatzaileak

- artikulatu determinatzaileak eta ez-determinatzaileak eta haien erabilera (lanbideen izenen aurrean, izen propioen aurrean, familia izanen aurrean...)
- adjektibo determinatzaileak: edutezkoak, erakusleak, zenbakizko kardinalak eta ordinalak, zehaztugabe batzuk (*poco, molto, tanto, qualche, troppo, abbastanza, altro*)

### °Izenordainak

- subjektu, objektu zuzen eta zeharkako objektu bihurkariaren funtzioa duten pertsonalak.
- che* izenordain erlatibo aldaezinaren erabilerak.
- zehaztugabe batzuk (*niente, nulla, nessuno, qualcosa*)

### °Aditzak

- indikatiboa: aditz erregular eta irregular ohikoenen orainaldiko morfologia eta erabilerak.
- essere* eta *esserci* aditzaren erabilerak; orainaldi jarraitua; moduzko batzuk.
- Iraganaldi burutuko morfologia eta denboraren erabilerak, laguntzailearen hautaketa; iraganeko partizipioaren forma erregular eta irregular ohikoenak; iraganeko partizipioaren eta objektu zuzeneko izenordain pertsonalen arteko komunztadura.
- Iragan burutugabearen morfologia eta oinarritzko erabileren aurkezpena.
  - baldintza: morfologia aurkeztu eta erabiltzen hasi.
  - agintera: berezitasun soziolinguistiko batzuen aurkezpena.

◦ **Adberbioak:**

- baiezkoak, ezezkoak, eta denbora, modu, toki, kantitateko ohikoenak; *non* partikularen kokapena eta erabilera.

◦ **Lokailuak:**

- preposizio propioak: sinpleak eta *articolate* eta *improprie* preposizioak. Mugimendua, tokia, denbora, pertenezia... adierazteko oinarritzko erabilerak
- koordinazioko (*e, ma, però*) eta menpeko (*perché, quando, mentre*) juntagailu batzuk.

◦ **Diskurtsoaren antolaketa:**

- puntuazioaren erabilera (gaztelaniak eta italierak erkide ez dituzten elementuak).
- Eguneroko komunikazioari loturiko diskurtsoaren antolakuntza-elementu batzuk.

◦ **Fonetika eta ortografia:**

Italierako fonemak eta grafemak: nola ahoskatzen diren eta nola idazten diren.

Atzerriko letren ahoskera eta ortografia.

Gaztelaniaren eta italieraren arteko desberdintasunen arabera, oposizioan dauden fonemak.

Kontsonante-fonema sinple eta bikoitzen oposizioa.

- Azentu tonikoa eta azentu grafikoa.

Intonazioa: baiezkoak eta ezezko perpaus enuntziatiboak. Galderazko eta harridurazko perpausak.

Silabetan nola zatikatzen den.

## OINARRIZKO MAILAKO BIGARREN KURTSOA

◦ **Perpaus bakuna**

- perpaus inpersonalen erabilerak: *occorre, serve, ci vuole*.
- aspektuzko aditzak dituzten esaldiak sendotu.

### ◦Perpauk konposatua

- proposizio koordinatu adbertsatiboak.
- menpeko konpletibo esplizitoak, hasieran *por che* + indikatiboa dutenak.
- menpeko konpletibo implizituak, hasierako elementurik gabeak (*mi piace/non mi piace* + infinitiboa; *vorrei/mi piacerebbe* + infinitiboa; *bisogna* + infinitiboa)
- indikatiboarekin baldintzako menpekoak, hasieran *se* dutenak.
- indikatiboarekin denborazko mendekoak, aurrean *mentre*, *quando*, *finché* dutenak.
- che* eta *quale* duten menpeko erlatibo esplizituak.

### ◦Izenak eta adjektiboak

- plural batzuen eraketa berezia (*cia*, *gia* ...); zenbait plural irregular.
- adjektibo kalifikatzaileen konparazioa eta gradazioa.

### ◦Determinatzaileak

- artikulua determinatzaileak eta ez-determinatzaileak: disimetria garrantzitsuenak ikusten hasi.
- adjektibo determinatzaileak: lehenengo kurtsoko edukiak sendotu. Zehaztugabe batzuk (*qualche*, *ogni*, *tutto*...)

### ◦Izenordainak

- objektu zuzeneko izenordainen eta zeharkako objektuko izenordainen formak eta erabilerak sakonago aztertu.
- forma konbinatuen aurkezpena.
- izenordain atonoen kokapena, aditzaren aurretik edo ostean, infinitiboaren aurrean *servile* aditza dutenenean.
- erlatibo aldagarriaren eta *che* aldaezinaren erabilerak eta kokapenak, eta *cui* aldaezina ikusten hasi.
- ci* eta *ne* partikula pronominalen erabilera ikusten hasi.

### ◦Aditzak

- indikatiboa: iraganaldi burutua berrikusi eta partizipio irregular berriak ikusten hasi.
- burutugabearen erabilerak zabaldu; iraganaldi pluskuanperfektuaren morfologia eta erabilerak; iraganaldiko denboren erabileraren txandakatu.
- aditz erregularren eta irregular handien etorkizun sinpleko formak, eta erabilerak eta moduak.
- baldintzaren formak eta erabilerak.
- aginteraren formak eta erabilerak.

### ◦Adberbioak

- funtzioaren eta kokapenaren ikasketa sendotu, gaztelaniarekiko disimetria sintaktiko batzuk antzemanez. -

*mente* amaitzen diren adberbioak eta zalantzazko adberbioak osatu.

#### ◦ Lokailuak

- preposizioen formak eta erabilerak zabaldu. Proposiziozko lokuzio batzuk (*lontano da, vicino a, ...*)
- juntagailu adbertsatiboak (*ma, però, tuttavia*), korrelatiboak (*sia...sia, né...né*).

#### ◦ Diskurtsoaren antolaketa

- koherentzia eta kohesioa bermatzen dutenzenbait diskurtso-elementu, eta funtzioa faktikoa duten ahozko hizkeraren beste diskurtso-elementu batzuk (*capisci?, dai!, mah!, ah!...*).

#### ◦ Fonetika eta ortografia

- Kontsonante bikoitzen erabilera sendotu.
- Intonazioa: arlo orokorrak eta partikularrak. Perpaus galdetzaila, perpaus negatiboa. Intonazioaren bidez azpimarratzen diren hitzak.
- Eskualdearen arabera gertatzen diren fonemen ahoskeradesberdintasunak.

## Nola ikasiko dute?

(1. eta 2. kurtsoetan berdín)

Kurtso honetako helburua ikasleak hizkuntza eraginkortasunez erabiltzea da; beraz, **ikasgelako eta auto-ikaskuntzako jardueren** oinarria ikaslea **benetako komunikazio-egoeretan** jartzea eta hauei aurre egitea da, hau da, **ulermena, sormena, elkarrekintza eta bitartekaritzako jarduerak**.

Ikasleak hizkuntza erabiltzeko gaitasuna garatzeko eta autonomiaz ikasteko, honako hau aplikatuko da:

### Ulermen-estrategiak

- o Norberaren ezagupenetan eta esperientzietan oinarrituta hipotesiak eratu, formatua eta irudiak kontuan hartuta.
- o Soinuak ezagutu eta dagozkien grafiekin identifikatu (edo alderantziz).
- o Ahozko mintzairaren ezaugarriak ezagutu (intonazioa, erritmoa, etenak, ahotsaren modulazioa), solaskidearen asmoa zein den ulertzeko.
- o Ahozko mintzairan hizkuntzaz gaindiko elementuak behatu eta ezagutu (keinuak, jarrerak...)
- o Hizkuntzaren berezko eduki eta arau kulturalak behatu eta ezagutu.
- o Ezagunak ez diren hitzak identifikatu honakoak erabiliz: norberaren ezagutzak, esaldiaren zentzu orokorra, egoera, testuingurua, beste hizkuntzen ezagutza, gramatika-gakoak edo lexiko-gakoak.
- o Estrategia pertsonalak erabili (hitz-gakoak idatzi edo azpimarratu, hitzen edo lokailuen zerrendak egin...).
- o Hitz ezezagunen esanahiaren gaineko hipotesiak egin ondoren hiztegia erabili.

### Adierazpen-estrategiak

- o Ereduetatik abiatuz soinuak, intonazio jarraibideak eta grafiek erreplikatu.
- o Ikasitako hizkuntza-egiturak erabiliz ahozko eta idatzizko testuak sortu.
- o Orekatzeko estrategiak erabili, hala nola, parafraseatu, edota ama-hizkuntzako hitzak, hitz-betegarriak, sinonimoak, etab. erabili.
- o Mintzakideek emaniko zeinuen bidez arrakasta eta hutsegiteak aztertu eta auto-ebalatu (huts egin gabeko erreplikatzeko, keinuak, ...), auto-zuzenketarako eta bere buruarengan konfidantza areagotzeko.

### **Elkarrekintzarako estrategiak**

- o Maiz erabiltzen diren esaldi estandarrek erabili (zoriondu, agurtu, adio esan, zortea opa izan...), ahoz zein idatziz.
- o Hobeto ulertu ahal izateko mintzakidearen jokabidea behatu eta arretaz zaindu.
- o Isiluneak edo komunikazio-hutsak saihesteko estrategia orekatzaileak erabili: laguntza eskatu, errepikatzeko edo argitzeko eskatu, ahozkoa ez den hizkuntza erabili, gaia aldatu, pentsatzeko astia hartzeko esamoldeak erabili...
- o Mezua ulertu dela baieztatu: mintzakideari zuzen dezala eskatu eta balizko gaizki-ulertuak argitu.

### **Autoikasketarako estrategia**

- o Baliabide pertsonalak (testu-liburua, norberaren hiztegia, oharrak, etab.), ikastetxean daudenak (liburutegia, baliabide-gela, etab.) edo bertatik kanpokoak (Internet) aurkitu eta eraginkortasunez erabili.
- o Hiztegia, gramatika, etab. ikasteko oinarriko estrategiak aurkitu eta ikasi den hizkuntza bizkor eta sarritan erabili.
- o Ikaskuntza errazteko estrategiak erabili: orekatzaileak (parafraseatu, mimika erabili, etab.), afektiboak (hutsegitearen aurrean norberaren buruarengan konfiantza eduki, ataza bat egiteko arriskua hartu) eta sozialak (ikaskideekin lan egin, jatorrizko hiztunekin hitz egin, etab.).
- o Ikasteko eta lanerako teknikak garatzeko estrategiak erabili: buruz ikasteko teknikak (erlazio mentalak, mapa mentalak... sortu), kognitiboak (aztertu, hausnartu, arrazoitu...) eta metakognitiboak (helburuak markatu, gertaera berriak eta iraganekoak lotu).
- o IKTen bidez komunikazio-egoeretan parte hartu (mugikorretako mezuak, txatak, posta elektronikoak...).
- o Hutsegite ohikoenak zein diren hauteman, zergatiak aztertu, eta hutsegitea ikasketa prozesuan ezinbesteko elementua dela barneratu.
- o Hutsegitea ikasketa prozesuan ezinbesteko elementua dela barneratu.

- Hitzak eta esamoldeak definitu.
- G

## OINARRIZKO MAILA

### TREBETASUN BAKOITZA EBALUATZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

#### OINARRIZKO MAILA - 1

##### **IRAKURMENA**

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Informazio-testu erraz eta laburren eta deskribapen errazen ideia orokorra ulertu, bereziki testua azaltzen lagunduko dioten irudiak badaude.
- Oso testu labur eta errazak ulertu, ezagunak zaizkion hitzen eta oinarrizko esamoldeen laguntzaz eta, adibidez, testuaren pasarteak berriz irakurritz.
- Jarraibide erraz eta laburrei segitu, bereziki irudiak badituzte.
- Egunerokoari lotutako testu bateko (adibidez, iragarki bateko) hitz eta esamolde errazak ezagutu.
- Mezu labur eta errazak ulertu, hala nola postal bat edo posta elektronikoa bat.

##### **ENTZUMENA**

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Eguneroko beharrei lotutako ohiko esamoldeak ulertu, astiro eta argi esaten direnean eta behin baino gehiagotan esaten direnean.
- Hizketaldi bat ulertu, astiro eta argi ahoskatuta badago eta esanahia barneratzeko etenaldi luzeak egiten badira.
- Galderak eta jarraibideak segitu eta argibide labur eta errazei segitu.
- Zenbakiak, salneurriak eta orduak ulertu.

##### **IDAZMENA**

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Isolatutako esamolde eta esaldiak idatzi.
- Egunerokoari lotutako ohar errazak idatzi.
- Postal edo posta elektronikoa erraz eta laburra idatzi.
- Inprimakiak datu pertsonalekin bete.
- Bizilekua deskribatu.

##### **MINTZAMENA**

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Bere burua aurkeztu eta pertsonari eta tokiei buruzko esaldi labur eta isolatuak erabiliz hitz egin.
- Bere burua eta inguru hurbila deskribatu: lanbidea, familia, bizitokia.

- Elkarrizketetan era errazean parte hartu, astiroago errepikatzea, beste modu batean esatea eta zuzenketak egitea badago.
- Egunerokoari lotutako galdera errazak egin eta halakoei erantzun.

## OINARRIZKO MAILA - 2

### IRAKURMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Hitz arruntak, baita nazioarteko hitz arruntak ere, dituen testu labur eta errazak ulertu.
- Egunero erabili ohi diren aparailuei buruzko jarraibideak dituzten testu labur eta errazak ulertu.
- Material errazetatik abiatuz (gutunak, liburuxkak, menuak, zerrendak eta ordutegiak) informazio zehatza bildu.
- Gutun erraz eta laburrak ulertu, eta baita gai praktikoei buruzko gutun formal batzuk ere, adibidez eskaera bat jaso den baieztapena edo beka bat onartu dela.
- Egunkarietako testu labur eta errazetan informazio nabarmena hauteman, adibidez gertakizunak deskribatzen dituzten albisteen laburpenak.
- Toki publikoetan, esate baterako kale, tren geltoki, metro edo aireportuetan, egon ohi diren mezu eta oharrak ulertu.

### ENTZUMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Hizkera argi eta geldoa bada, bere aurrean egindako elkarrizketa baten zentzu orokorra eta informazio zehatza ulertu, eta gai aldaketa bat identifikatu.
- Parte hartzen duen elkarrizketetan diskurtsoa ulertu, argia eta hizkuntza estandarrean bada eta informazioa eskatu ahal badu.
- Eguneroko kudeaketa eta trukeei buruzko jarraibide errazak ulertu, hala nola leku batetik bestera oinez edo garraio publikoan joatea
- Gertaerak, istripuak, eguraldien berria, etab. direnean telebistako albistegien ideia nagusia ulertu eta identifikatzen jakin, azalpena laguntzeko irudiak daudenean.
- Mezu eta ohar argi eta errazen ideia nagusia antzeman eta ulertu.
- Eguneroko gaiei lotutako pasarte grabatuetan funtsezko informazioa ulertu, argi eta astiro hitz egiten bada.

### IDAZMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Gutun pertsonal errazak idatzi: bere buruaz edo inguruaz hitz egin, eskertu edo barkamena eskatu.
- Gertaerak eta jarduerak labur eta bakun azaldu.
- Planak eta asmoak azaldu, eta lehentasunak adierazi.
- Zerbitzuren bat edo informazioa eskatzeko gutun formal erraz eta laburrak idatzi.

### MINTZAMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Historiak kontatu edo zerbait deskribatu, elementuen zerrenda bakuna eginez.

- Aurretiaz prestaturiko aurkezpen edo mezu laburra egin, gai ezagun bati buruz.
- Lehentasunak eta gogoak adierazi.
- Eguneroko truke eta kudeaketetan ondo moldatu.
- elkarrizketa laburretan erraztasun dezenterekin parte hartu eta truke erraz eta ohikoetan ahalegin handirik gabe konpondu.

## AZKEN PROBAK

### OINARRIZKO MAILA - 1

#### AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketaren gehienezko iraupena: 55 minutu. Irakurmeneko probak 45 minutuko iraupena izango du eta ahozko probak 10 minutukoa, beste saio batean.
- Oinarrizko MAILA - 1eko azterketa gainditzeko, ikasleak idatzizko eta ahozko probak gainditu beharko ditu, atal bakoitzean gutxienez 20 puntutik 12 lortuz. Atal batean lortutako puntuazioak ez du konpentsatuko bestean lortutakoa.

### OINARRIZKO MAILA - 2

#### AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketaren gehienezko iraupena: 2 ordu. Irakurmen, ulermen eta idazmen probetarako ordu bete 45 minutu gordeko da eta saio bakar batean egingo dira. Ahozko probak 15 minutu iraungo du eta beste saio batean egingo da.
- Oinarrizko Mailako Ziurtagiria lortzeko ikasleak probetako bakoitza gainditu beharko du: irakurmena, entzumena, idazmena eta mintzamena. Atal batean lortutako puntuazioak ez du konpentsatuko besteetan lortutakoa.

#### PROBEN DESKRIBAPENA:

##### IRAKURMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO EMAITZA	IRAUPENA
3	20 puntu - % 25	12 puntu	40 minutu

Helburuak	Testu motak	Ataza motak
-----------	-------------	-------------

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eguneroko gertaera bati lotutako informazioa identifikatu.</li> <li>• Testuaren ideia nagusiak ulertu.</li> <li>• Testua xeheki ulertu, adibidez gutun pertsonal bat.</li> <li>• Ezaguna den gai bati buruz eta erraz idatzita dagoen kontakizun laburra ulertu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazio-liburuxkak.</li> <li>• Jarraibide orriak.</li> <li>• Egunkari eta aldizkarietako interes orokorreko artikulak.</li> <li>• Liburu eta filmen errezentzioa.</li> <li>• Publizitate iragarkiak.</li> <li>• Gutun pertsonal errazak.</li> <li>• Gutun formal edo komertzial errazak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzuna: aukera ugariak.</li> <li>• Egia-gezurra.</li> <li>• Informazio-transferentzia.</li> <li>• Antolamendu jarduerak.</li> <li>• Lotu: (goiburua eta testua...)</li> <li>• Hutsuneak bete.</li> <li>• Erantzun bakarreko galdera irekiak.</li> </ul>
--	---	---

## ENTZUMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENeko EMAITZA	IRAUPENA
2 / 3	20 puntu - % 25	12 puntu	20 minutu

Helburua	Testu motak	Ataza motak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bereizitasunez ulertu.</li> <li>• Informazio nagusia ulertu.</li> </ul>	Grabaketak (audio/bideoa): <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrez-aurreko elkarrizketa informalak.</li> <li>• Bankuetan, dendetan, agentzietan izan daitezkeen elkarrizketak.</li> <li>• Iragarki publikoak eta publizitatea.</li> <li>• Telefonoko mezuak.</li> <li>• Albiste laburrak.</li> <li>• Eguraldiaren iragarpenak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzuna: aukera ugariak.</li> <li>• Egia-gezurra.</li> <li>• Informazio-transferentzia.</li> <li>• Erlazionatu/lotu.</li> <li>• Erantzun bakarreko galdera irekiak.</li> </ul>

## IDAZMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA.	GUTXIENeko EMAITZA	IRAUPENA
2	20 (5 + 15) puntu - % 25	12 puntu	45 minutu.

Helburua	Testu motak	Ataza motak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazio zehatza eman, era labur eta errazean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezu elektronikoa.</li> <li>• Postala.</li> <li>• Oharra.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezua, postala, oharra... idatzi (40 hitz inguru).</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>Informazioa, jarraibideak edo argibideak eman / eskerrak eman / barkamena eskatu / bere buruari buruz edo bere inguruari buruz idatzi / gertaera bat deskribatu / zerbitzu bat eskatu / informazioa eskatu...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskutitz pertsonal laburra.</li> <li>Gutun formal erraza.</li> <li>Gertaera baten deskribapen laburra.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gutun bat, deskribapen bat edo historia bat idatzi, testu labur baten erantzun gisa edo jarraibideei segituz (110 hitz inguru).</li> <li></li> </ul>
---	--	---

## MINTZAMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA	GUTXIENKO EMAITZA	IRAUPENA
3	20 (4+8+8) - % 25 puntu	12 puntu	15 minutu

Helburua	Testu motak	Ataza motak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Bere burua aurkeztu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bakarrizketa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bere burua aurkeztu, txartel bateko eta aztertzailerearen galderei erantzunez.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eguneroko gai bati buruz labur mintzatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beste ikasle batekin/batzuekin elkarrizketa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bizpahiru ikasleren artean elkarrekintza sortu, txartel batzuetan eskaini zaien jarraibideen arabera.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Proposamenak egin akordioa bilatzen saiatuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beste ikasle batekin/batzuekin elkarrizketa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bizpahiru ikasleren artean elkarrekintza sortu elkarri proposamenak egiteko eta akordioa lortzen ahalegiteko, eman zaien informazioaren arabera: agenda pertsonala, kultura-agenda, mapa...</li> </ul>

## ONARRIZKO MAILA 1 ETA 2 EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

### IDAZMENA

Irizpidea	Azalpena
Egokitzapena	Zera neurtzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>ikasleak atazaren deskribapenak emaniko jarraibideei (gutuna, kontakizuna) jarraitu dien.</li> <li>ikasleak eskatutako informazioa eman duen (oharra, posta elektronikoa).</li> <li>testua ulergarria den.</li> <li>eskatu den testu-formatuari egokitzen zaion (Ad. gutun batean agurrezko formulak erabili dituen).</li> </ul>
Kohesioa eta zuzentasuna	zuzentasunari ulergarritasuna lehenesten zaio. Baina ulergarritasunak honako eragina jasan dezake:

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• esaldien arteko kohesiorik eza.</li> <li>• hitz desegokiak erabiltzea.</li> <li>• hitzen ordenean hutsak egitea.</li> <li>• hitzen flexioan hutsak egitea.</li> <li>• ortografia hutsak.</li> </ul>
--	--

## MINTZAMENA

Irizpidea	Azalpena
Egokitzapena	Zera neurtzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>• ikasleak mintzakideari ulertzen dion.</li> <li>• egoki erantzuten duen.</li> <li>• ulertzeko moduan hitz egiten duen.</li> <li>• hiztegi egokia erabiltzen duen.</li> </ul>
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontuan hartuko da atzerriko azentua, etenaldiak eta zalantzak derrigorrez ematen direla hizkuntza baten oinarritzko ezagutzan.</li> <li>• Ulergarritasuna zuzentasunari lehenesten zaio. Halere, ama-hizkuntzatik eratorritako hutsek, edo bestek, ulergarritasunari kalte egin diezaiokete.</li> </ul>